

‘Prantzie kortekoa’ balada

Beste balada bat ezagutzeko ahalegina egingo dogu gaur. *Frantzie Kortekoa* izenagaz ezagutzen dana eukiko dogu aztergai

Unai Elorriaga

Bizkaian zabal-zabal dabilelen balada da Prantzie kortekoa, eta ahozko tradizio batzuetan be ondo ezaguna da (amaginarreba gaiztoa esaten jako beste kultura batzuetan). Balada hau, beste asko legez, Europako baladen tradizionotik hurrigo dago Espainiako Romancerotik baino.

Gaia sarritan ikusi izan dogu euskal zein munduko literaturan: ezezagunak edo kanpotik datorrenak sortzen deuskun beldurra. Politikoki hain artezak ez bagara, xenofobia be deitu geinkio.

Bertan Manuel Lekuonak Undurragan (Zeanuri) jasotako aldaera erabiliko dot batez be, baina beste leku batzuetako aldaerak be presente eukiko dodaz konparazioak egiteko.

Frantziatik bueltan datorren gizon bat agertzen jaku lehen ahapaldian amagaz berbetan. Amak jakin dau semea ezkondu egin jakona, eta triste dago hori dala-eta:

(...) -Nondikoa dakazu zeure emaztea?
-Prantzie kortekoa bai ama neurea.
-Ez dot gure prantzesik hain gitxi errenik
-Esan dodan berbiaz urten bihar dot nik.
-Esan dozun berbiaz urten bihar bozu, urten bidera eta hil ein behar dozu. (...)

Horra agindua. Hilteko agintzen deutso orduan. Semeak ez dau hil gura, jakina. Atxakia ipinten dau:

(...) —Hain de polite ba ze nire emaztea, ez da posible ama nik hori eitea. (...)

OKERRAK ZUZENDUZ

Euskerari tiro egin barik

OKER

*Tiro bat emon da.
*Nor dan itauntzen naz.
*Gutuna idatzi naz.
*Urkatuta hil da.

ARTEZ

Tiro bat emon deutso bere buruari.
Nor dan itauntzen deusatz neure buruari.
Gutuna idatzi deusatz neure buruari.
Urkatuta hil dau bere buruari.

Arrazoi ona. Hizkuntzari begitzen badeutsagu, ze ikasi badaukagu. Perpaus kontsektiboak egiteko modu naturala, hau da, gaztelaniazko 'tan... que' hori itzultzeko arazoak eukiten doguz. Eredua daukagu hemen: ez dot uste kanpoko hizkuntzen eraginez eginiko modua danik.

Senarrak ezin dauanez emaztea hil, anaia hartzen dau laguntzaile (aldaera batean arreba, bereizketarik ez da egin behar-eta). «Prantzes» hiltzen doazenean, danetarik eskaintzen deutse neskak «ixtiarren bizirik»: zaldiak, izerak, perlak, urre-kalizia... Hiltzaileek dana hartu bai, baina hil egiten dabe halan eta guzti be. Orduan, neska bere heriotzaren zantzuak entzuten hasten da:

-Karpai bat entzuten dot ez dakit nongoa, igual izango da agoniekkoa.
Abadea ekarritu konfesadu naiten animaren okerrak arteztu daidazen.

Neskak ondo daki hil egingo dana eta nor dan heriotzaren eragilea. Hori dala-eta, madarikazioak botako deutsoz amaginarrebari. Hori hurrengo atalean ikusiko dogu.

Hizkuntza

Madarikazioak-eta, irainak-eta hizkuntzaren atal dira. Esan izan da, topiko bihurtu arte, gurean ez dagoala holariorik. Balada honen bertsino diferentetan, Frantziako alabak botatakoak ikusiko doguz:

-Agur, Bizkaiko seme, amaginarreba; suge-musker handi bat sartuko al jana! (Gabikako aldaera —Ereño—)

-Agur, Bizkaiko seme da amaginarreba, sube-musker handi bat tragauko al jana! (Ereño aldaera)
Hurrengo apur bat diferentea da:
-Neure amainarreba, muskertxu berdie, subiek ein al deutso arratseko ohie! (Markinako aldaera)

Baladaren ostekoak

Balada honen sasoikoa behar dau Argentinan topatu barri dan gutuna. Euskaldun batek anaiari idazten deutso auzoan jazotako pasadizo bat. Beste gauza batzuen artean haxe kontatu eutsan: «(...) Esan bear deusatz ausoan isan dala lotsarisco gausa bat eta ausoko gustiek gausela charto. Etorri san Acharte baserrico semea escondute Prantziatik eta amak esa eban esetz eta il eguin bear evala emaztea eta il evan baña es semeak espada anaiak. Etorri sirian guero prantsesaren nebak-edo eta baserria itxi even auts-einde, se asko sirian eta senarran burue ipini ei even eleisako aldarean eta abadeac diño berbetan egoala burue gurputze euki esarren eta esa eutsala abadeari honek berbak: luxuriac decos egoak baña luma bacoac. Eta guero il eguin sala diño abadeac, baña nic esteusatz sinistuten, estodalaco ori esan evana ulertuten Eta Achartecoa ondo esetuten nevan eta luxuria se dan be es evan jaquingo ac».

JOKIN ASPURU ‘UK’ ALDIZKARIKO ZUZENDARIA



VERONICA MUNOZ

«Bertoko euskera galdu egingo da»

Haritz Gallastegi | BILBO

Gaur egun jente gitxik ezagutu arren, Uribe Kostak bere euskera dauka. Euskalkiaren etorkizuna «iluna» izan arren, batuaren egoerak onera egin dala dino Jokin Aspuru *UK* aldizkariako zuzendaria.

■ **UK aldizkariako zuzendaria zara. Eskualde horretan euskeraren egoera ez da lar ona. Aldizkari moduan, zein da zuen erroka?**

Gure asmoa ahalik eta produktio profesionalena egitea da, euskeraz. Berez, gure helburua ez da euskera, ondorioa baino. Gure asmoa aldizkari kulturala egitea da, modu naturalean. Euskera gure hizkuntza da, beste barik.

■ **Uribe Kostan bizkaieraz egiten zan. Orain, barriz, ez da ia bape egiten. Etor-kizunik badauka?**

Ez dauka. Aldizkarian beti gordeten deusagu lekutxo bat, merezi dau eta. Apurtxo bat gogorra egin arren halan da. Zaharrek bakarrik berba egiten dabe bertoko euskera. Eurak ez deuskue erakutsi, ez da transmisinorik egon. Etorkizun iluna ikusten deusatz; berbeta hori berreskuratzea oso gaxa da.

■ **Zer egin leike uribe kostako euskera ez galtzeko?**

Aldizkariok saiatzen gara bertoko euskera dagoala jakinarazoten. Izan be, euskaldun askok jakin ez dakie. Baserrietako euskera da, eta ez da sekula kalean egongo.

■ **Batuak, barriz, badauka etorkizunik?**

Baietz uste dot. Gaur egun, kalera urten eta edozein ume euskeraz berba egiten entzuten dogu. Gehienek badakie, eta hori asko da.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Unai Elorriaga

Zortzi milla dukatean

Etedago, atzetik begiratuezkero, itxusia eztan basetserik? Latsibik, orregaitiño, aurretik baizen ikusgarri zirudian motax ganetik, Santiren begiz ikusita. Luzaro ta zurt egon zan abelzaiña, besoak auma ebazala, bere yaiotetseari adi. Mutilkotxotan ikasgura sartu baiño be lenago, aitaitari ate atati-xek berak lagun egiten eutsan, zidor atantxe zear, baratzeria bertara, idi ta idisko, bei ta bigantxa ataraten.

Etsagun zan aitaita, Latsibiren yaubea, Latsibiko jauna, etsagun aita; bera, Santi, yaubegei yaio zan ta yaubegei, oiñordeko, azi ta kozkortu. Ezkonduetako egoala, amaren aldeko aide batek molokot egieran, on-

datu ekioezan euren ondasun guztiak; eta zorrai arpegi emoteko, yaiotetsea Simon Intxaurragari, Aginbakoren osaba indianuari, saldu eutsen. Etsera ta etseari begira ta aita zana irudimenez egoanartean, gurasoak itamuan esandako itz onek gogoratu ekiozan: "Santi, esku utsean, etse bagarik naioak lurpera, neure aitaren azur-artera. Alegin osoa egik, seme, baztar onek izerdiz bigundu ta ekarkor biurtzeko. Zortzi milla dukat garbi garbi pillotu dagiazan egunean ager adi Simonen oiñordekoakgana ta esan egioek: «Zortzi milla dukatean saldu eutsuen nire aitak Latsibi barriro erosi al izatekotan. Ona emen zortzi milla dukatak. Bere izenean in-

dazue, arren bai arren, geure etse au ta Jaungoikoak zori oneko egin zagiezala, gaurrarte zutunik euki dozuelako». Seme, etsagun iltea yaurri badagik, Yatabeko ilerri-lurrari biguna eritxiko dautsek ire azurrak, nireak eritxiko dautsen baiño biguna goa."

Bat-batera, gogamen onek etenda, txapela erantzi eban Santik. Mungiako txirranean laurak yota ango elizaiña daun-daun asi zan argi txiliñari ots eragiten; (...)

'Latsibi' liburutik jasoa.

Egilea: Resurreccion Maria Azkue.

Argitaratzailea: Labayru ikastegia.